

Txostenak ebaluatzeko irizpideak

Izenburua

- Izenburuak identifikatzen al du argi eta garbi planteatutako ebaluazioaren xedea? Labur edo luzeegia al da?

Ebaluazio-gunearean testuingurua

- Ebaluatutako objektua garrantzitsua, interesgarria al da? Argi eta garbi formulatuta al dago?
- Ebaluazioaren helburuak azaltzen al dira era argian?
- Ebaluatu nahi izan denari dagokion bibliografia berrikusi al da? Aipamenak behar den bezala daude?
- Egoera, testuingurua eta partaideak behar diren adina deskribatzen al dira?

Metodoa

- Erabilitako metodologia garbi aurkezten al da?
- Justifikatzen al da behar adina erabilitako ikusmolde metodologikoa
- Metodologiari dagozkion atal garrantzitsuenak agertzen al dira?
- Aukeratutako aldagaiak esanguratsuenak al dira? Kopurua nahikoa al da? ala gehiegi?
- Datuen bilketarako teknikak deskribatzen al dira? Neurtzeko tresnak baliagarri eta fidagarriak al dira? Erabilitako teknikak egokiak al dira? Datu-bilketarako prozedurak deskribatzen al dira? Datuak biltzeko prozesua zehatza izan al da?
- Garbiki definituta gelditzen al da populazioa eta lagina? Informatzaileak deskribatzen al dira?
- Deskribatzen al dira erabilitako datu-azterketarako teknikak? Estatistikako probak era egokian aplikatzen al dira? Kategorizazioak egin badira, egokiak al dira?
- Datuak murrizteko prozedura (kategorizazioa, kodifikazioa, bilketa, ...) agertzen al da? Datuak era bereziren batean (taula, eredu, matrizea, sarea, ...) antolatzen al dira?

Emaitzak eta konklusioak

- Bildutako datuek konklusioak justifikatzen al dituzte?
- Emaitzak era argi eta egokian aurkeztuta daude?
- Partaideen eta ebaluatzailearen interpretazioak era desberdinean azaltzen al dira?
- Egindako interpretazioak baliozkoak al dira?
- Ziurtatzen al da konklusioak ebaluatzailearen aurreiritziz ez daudela soslaituta?
- Desberdintzen al dira konklusioak eta iradokizunak?
- Desberdintzen al dira aurkikuntzak eta datuak?
- Aurkikuntzak, zorrotasunaz agertzen al dira?
- Aurkikuntzek, hezkuntza-praktika hobetzeko balioko al dute?
- Generalizazioak zuzenak al dira?
- Aplikapen praktikoaren posibilitateak azaltzen al dira?
- Ondorengo ebaluazioek planteatutako gai berriak aurkezten al dira?
- Ebaluazioaren mugaketa eta baldintzen balorazio kritikorik egiten al da?

Bibliografiaren aurkezpena

- Ezarritako arauetara egokitzen al da?

- Bibliografiaren zerrenda eta berrikuspenean azaldutakoa bat al datoz?

Txostenaren antolaketa, aurkezpena, forma eta estiloa

- Txostena argia eta irakurgarria al da?
- Txostenak aurkezteko eskatzen diren arauak betetzen al dira?
- Txostenaren tonuak, jarrera zientifiko, neutrala eta ez-soslaitua azaltzen al du?
- Banaketa logikoa eta orekatua al dauzka? kapitulu, atalak, gehigarriak?
- Izenburuak adierazgarri eta zehatzak al dira?
- Irudiak, grafikoak eta diagramak argi ikusten al dira?
- Atal bakoitzari emandako luzerak, bere garrantziarekiko erlazioa gordetzen al du?